

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua arautzen duen udal-araudia behin betiko onartzea

Udalbatzak 2026ko apirilaren 23an egindako ezohiko osoko bilkuran hartutako erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro da. Erabaki hori 2026ko maiatzaren 20ko 57 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua arautzen duen udal-araudiaren hasierako onespenerari buruzkoan, eta, horren barruan ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu, ordura arte behin-behinekoa zen erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, erabakia osorik argitaratzen da, behin betiko bihurtuta.

Zalduondon, 2026ko uztailaren 8an

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU

**GIZARTE-ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO
ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA****I. TITULUA****1. artikulua - Xedea eta aplikazio-eremua**

Araudi honen xedea da Zalduondoko udalerrian gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, haurtzaroan, arautzea.

2. artikulua - Ezaugarriak

Zerbitzu honek gizarteratzea sustatu eta pertsona batzuen babesgabetasun-egoeraren aurka borrokatu nahi du, eta, horretarako, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean harreman-prestazioen multzo bat eskaintzen ditu, banaka, familiak edota taldeka.

3. artikulua - Helburuak

Zerbitzu horren helburu orokorrak honako hauek dira:

- a) Erabiltzaileek norberaren, familiaren edo taldearen gaitasunak bereganatzea eta garatzea (jarrerak, gaitasunak, ezagutzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak), haien garapen autonomoa, haien gizarteratzea eta familia- eta komunitate-ingurunean bizikidetzaren egokia ahalbidetzeko.
- b) Erabiltzaileek ohitura, jokabide, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak ordeztu, beste egokiago batzuk erabiltzea.

II. TITULUA**I. KAPITULUA - ZERBITZUAREN PRESTAZIOAK**

4. artikulua - Prestazioak

1.- Aipatutako helburuak betetzeko, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak prestazio hauek eman ahal izango ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan:

- a) Informazioa.
- b) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea.
- c) Jarraipenaren balorazioa.
- d) Gizarte-laguntza (akonpainamendua).
- e) Bitartekaritza.

2.- Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak honako programa hauek barne hartu ahal izango ditu:

- a) Prebentzio komunitarioaren eta bazterkeriaren prebentzioaren esparruko programak:
 - Gizarteratzeko ibilbidean laguntzea.
 - Gizarteratzeko espazioak.
 - Kale Hezkuntzako Programa.
- b) Umeak babesteko programak:
 - Haurren eta familien eguneko zentroa.
 - Familian esku hartzeko programa espezializatua.
 - Ikerketa edota balorazio psikosozialeko txostenak egiteko programa.
 - Laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa.

II. KAPITULUA - ERABILTZAILEAK**5. artikulua - Erabiltzaileak zehaztea**

1.- Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren lehentasunezko arreta hurrengo hauek izango dute:

- 1.1 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak.
- 1.2 Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak.
- 1.3 Babesgabetasuneko arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden adingabeak. Babesgabetasun larriko arrisku-egoeran dauden pertsonak, adingabeak zein helduak izan, kanpoan geratuko dira, eta haien arreta Familiekiko gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuei dagokie.

Eta, gainera, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean laguntza behar dutenak, honako hauetarako:

- a) Familia-bizikidetzaren hobetzea.

- b) Pertsonak eta familiako kideak zaintzeko eta artatzeko trebetasunak hobetzea.
- c) Komunikazio- eta harreman-trebetasunak hobetzea.
- d) Eskubide eta zerbitzuei buruzko informaziorako sarbidea erraztea eta sustatzea.
- e) Garapen autonomia erraztea edo ahalbidetzea.
- f) Sustatzea eta gizarteratzea erraztea.

2.- Honako egoera hauek aitortuta duten gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzutik kanpo geratzen dira:

- 2.1 Babesgabetasun larria helduengan, haurrengan eta nerabeengan.
- 2.2 Gizarte-bazterketa.

3.- Era berean, honako hauek ere gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzutik kanpo geratzen dira:

- 3.1 Gizarteratze-beharrizanei erantzuteko dauden eguneko zerbitzu edo zentroen erabiltzaileak.
- 3.2 Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitzen erabiltzaileak.

6. artikulua -Bete beharreko baldintzak

Araudi honen 5. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1) Administrazio-betekizunak:

- a) Eskabidea egiten den egunean Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea, Gasteizen izan ezik, eta bertan errolatuta egotea zerbitzuak irauten duen bitartean.
- b) Agindu teknikoak adieraztea gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua baliabide egokia dela bere beharrizanei/egoerari erantzuteko.
- c) Eskaintako zerbitzuari berriazko baimena ematea. Halakorik ezean, tutoretza legez gauzatzen duenak adierazi ahal izango du baimen hori.
- d) Gizarteratzeko ibilbideetan eta guneeetan laguntzeko programetarako, gizarte-bazterkeriako arrisku-egoera aitortua izatea.

2) Beharizan-baldintzak:

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialeko laguntza honako honetarako behar du:

- a) Familia-bizikidetza hobetzeko;
- b) Kideen arreta- eta zaintza-trebetasunak hobetzeko;
- c) Komunikazio- eta harreman-trebetasunak hobetzeko.
- d) Garapen autonomia hobetzeko.

7. artikulua –Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gain, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuko erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

— Duintasuna: pertsona guztiei errespetu, zuzentasun eta ulermen osoz erantzun beharko zaie, modu pertsonalizatuan eta indibidualizatuan, haien lehentasunak, erlijio-edo kultura-faktoreak eta baldintza fisiko edo psikikoak kontuan hartuta. Hori guztia segurtasun- eta higiene-baldintza onenetan eta arrazoizko denbora-epeetan.

— Pribatasuna eta konfidentzialtasuna: haiei dagokien informazio pertsonal guztiari eragiten dio, bai intimitateari, bai pertsonari, bai espedientean edo pertsonalki eragiten dien edozein dokumentutan dauden datuen tratamenduari.

— Beharrianen ebaluazioa izatea: profesionalek beharrianen ebaluazio pertsonalizatua egin beharko dute, erabiltzailearen deskribapena, laguntza-sare naturalaren datuak eta beste zerbitzu batzuetan izan daitezkeen aurretiazko informazioak kontuan hartuta. Ebaluazio horren emaitzak pertsona bakoitzari jakinaraziko zaizkio, eta prestazioen eskaera onartzen ez bada, erreklamazio-bideen berri emango zaio.

— Banakako Arreta Pertsonalizatuko Plana: ebaluaziotik abiatuta, pertsona bakoitzak bere beharretara egokitutako arreta-plan indibiduala izan beharko du. Erraz ulertzeko lengoia duen idatzia, erabiltzaileei eta haien hurbilekoei eman eta azalduko zaie. Bertan adieraziko dira prestazioak, horiek egiten dituzten pertsonak, koordinazioaz arduratzen den profesionala eta larrialdietarako harremanetarako telefonoa. Ebaluazioaren berrikuspena zein egunetan egiten den ere adieraziko da.

— Autonomia: pertsona guztiek dute modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea, baita kalkulaturako arrisku-maila jakin batzuk beren gain hartuta ere. Beren bizimodua eta zein jarduera eta zerbitzutan parte hartu nahi duten aukera ditzakete, nahi dituzten erabakiak hartuz. Horretarako, informazio egokia eta ulergarria izan beharko dute.

— Informazioa jasotzeko eskubidea: erabiltzaileek eskubidea dute gizarte-zerbitzuetara jotzeko beharrezkoa den informazio guztia izateko. Informazio hori argi, zehatz eta ulergarri emango da.

— Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eskubidea.

8. artikulua - Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Informazioa transmititzea: euren beharren ebaluazioa egin ahal izateko beharrezkoa, egiazkoa eta zehatza den informazioa emango dute, eta, Banakako Arreta Planean edo Arreta Pertsonalizatuko Plana egiteko beharrezkoa dena.
- Barne-araubidea betetzea: erabiltzaile diren zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne-arauak ezagutu eta beteko dituzte.
- Zerbitzua ematean esku hartzen duten profesionalei lana erraztea, laguntzea eta zuzen eta errespetuz tratatzea.
- Hitzordua errespetatzea: zerbitzua emateko ezarritako datak eta orduak errespetatuko dira. Arrazoren batengatik ezinezkoa bada, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko dute.
- Organo eskudunari edozein aldaketa jakinaraztea, zerbitzua eskuratzeko eskubidea onartzeari eragin diezaikeena, aldaketa gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.
- Udaleko teknikariei zerbitzua ematen den bitartean sortzen diren gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea, beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Gaixotasun infekzio-kutsakorren edota gaixotasun mentalen kasuan dagokion tratamendua ez baztertea.
- Udaleko gizarte-zerbitzuek eskatzen dizkieten hitzorduetara joatea.

Betebeharrak horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo azkentzeko prozedura hasiko da, araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

III. KAPITULUA- ZERBITZUA ESKURATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURA

1. ATALA- ZERBITZURAKO SARBIDEA**9. artikulua – Zerbitzua eskuratzeko eskaera**

Araudi honetan araututako gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuan sartzea, interesdunak edo laguntza-neurriak hartzen dituenak eskatu ondoren egingo da, organo eskudunari zuzendutako inprimaki normalizatuan, eskatzaileak sinatuta eta Udalak horretarako gaituta duen edozein erregistrotan aurkeztuta, edo edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako beste erregistroetan edo moduan.

Zerbitzua eskuratzeko borondatezkoa izango da, eta eskatzaileak bertan aktiboki parte hartzeko konpromisoa adierazi beharko du.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak bere eskaeran atzera egin dezake; kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du, dagokion administrazio-ebazpena eman ondoren.

10. artikulua - Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1) NANaren fotokopia edo indarrean dagoen beste edozein identifikazio-agiri baliokide.
- 2) Familia-liburua, familia-unitatean 18 urtetik beherakoak badaude.
- 3) Gizarte-zerbitzuen iritziz beharrezkoa eta egokia den beste edozein agiri.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aurreko dokumentuetako edozein aurkeztu beharrik izango, dokumentu horietako edozein administrazioaren esku dagoenean. Udal- edo foru-mailako gizarte-zerbitzuek ezin badituzte agiri horiek bildu, berriz ere eskatu ahal izango diote interesdunari agiri horiek aurkezteko.

Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea edo akastuna bada, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Udalak eskatzailearen eta, hala badagokio, gainerako onuradunen datuak egiaztatuko edo bilduko ditu. Datu horiek araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea mugatu beharko dira.

Eskatzaileak edo, hala badagokio, gainerako onuradunek ez badute baimenik ematen aurreko apartatuan aurreikusitako datuak egiaztatzeko edo biltzeko behar diren kudeaketak egiteko, idatziz adierazi beharko dute. Egiaztatzerik ez badago, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, baldintzak ez egiaztatzeagatik.

Datuak faltsutu eta ezkutatu gero, zerbitzuaren eskatzaile-izaera galduko da, izan daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

11. artikulua - Tramitazioa

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta proposamen-txosten soziala egiteko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) BEHARRIZANEN BILAKAERA

Eskatzailearen beharrianen tramitazio, balorazio eta ebaluazioa eskatzailearen egoitzari dagokion Udaleko Gizarte Zerbitzuek egingo dute.

B) TXOSTEN SOZIALA-PROPOSAMENA

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langintzako zerbitzu teknikoek Arreta Pertsonalizatuko Plana egingo dute. Horretan honako hauek zehaztuko dira:

- Zerbitzuan sartzeko eta eskabidea aurkezteko baldintzak betetzea.
- Eskatzailearen eta, hala badagokio, haren familia-unitatearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta sozialak.
- Gizarte Diagnostikoa eta laguntza-planaren proposamena.
- Hala badagokio, zerbitzua emateko proposamen arrazoitua.
- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak gehienez hilabeteko epea izango du espedientea izapidetzeko, eskaera sartzen denetik zenbatzen hasita.

12. artikulua. Espedientearen azterketa teknikoa eta proposamenaren balorazioa

Espedientea izapidetu ondoren, organo kudeatzaile eskudunari igorriko zaio, eta hark espedientearen azterketa teknikoa egingo du. Azterketa horretan oinarrituta, honako hauek zehaztuko dira:

- Arreta Plan Pertsonalizatuan aurreikusitako zerbitzuak egokiak diren ala ez.

- Zerbitzua hainbat modalitatetan ematen bada, eskatzailearen beharrianetara ondoen egokitzen den modalitatea.
- Hala badagokio, zerbitzuaren intentsitatea eta maiztasuna.

Horretarako, organo kudeatzaileak eskaerak ebaluatzeko beharrezkoa den Balorazio eta Orientazio Batzordea sortu ahal izango du.

13. artikulua.- Ebazpena

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, dagokion Balorazio eta Orientazio Batzordeak edo pareko organoak dagokion proposamen teknikoa egingo du, eta organo eskudunari igorriko zaio. Organo horrek ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzuan sartzeko eskaera onartuz edo ezetsiz.

Eskaera udal erregistroren batean sartu ondoren, gehienez bi hilabete barruan eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da jakinarazpenaren eta jakinarazpena bete bitartean eskaerak zuzentzea eskatzen denean, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazteko betebeharra alde batera utzi bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, interesdunari aukerako errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko aukera emate aldera.

Baiezko ebazpenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Zerbitzua ematea onartzen dela, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren tipologia, eragin-data eta iraupena.
- Ebazpenak adieraziko du, halaber, zerbitzurako eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzailearentzat eta, hala badagokio, haren legeko ordezkariarentzat edo izatezko zaintzailearentzat, eskubide horri eragin diezaiokeen edozein aldaketa organo eskudunari jakinarazteko betebeharra, aldaketa hori gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.

Ebazpena ezezkoa bada, arrazoitua izango da. Ukatzeko arrazoiak dira:

- 6. artikuluan jasotako baldintzak ez betetzea.
- Zerbitzua ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea, prestazioaren izaeragatik edo eskatzailearen bizilekuagatik.
- Zerbitzuak erabiltzaileari eta zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisiko edota psikikoak eragin diezazkiekeen baloratzea.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazia izango dena, dagokion errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Onespenez-ebazpena, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinaraziko zaio, eta hark zerbitzua emateko kontratuan agertzen den epean gauzatu beharko du.

2. ATALA.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA

14. artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa

Udaleko Gizarte Zerbitzuek zerbitzua onuradunen beharretara egokitzen den ikusteko etengabeko jarraipena egingo dute, dagozkion aldaketak proposatuko dituzte eta onuradunekin batera proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dute.

Aldian behin ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak eskatuta, administrazio kudeatzaileak eskatuta edo protokoloetan eta kontratuetan ezarritako moduan.

IV. KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA AZKENTZEA

15. artikulua.- Zerbitzua etetea

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eten egingo da honako arrazoi hauengatik:

- a) Erabiltzailea aldi baterako ospitaleratzea.
- b) Erabiltzailea aldi baterako ez egotea, baliabide sozio-sanitarioak eskuratu behar dituelako.
- c) Erabiltzailea urtean berrogeita bost (45) egun baino gutxiagoz aldi baterako ez egotea, zerbitzuan sartzeko azken egunetik aurrera. Aldi hori luzatu ahal izango da egoera berezietan.
- d) Erabiltzaileak 8. artikuluan ezarritako betebeharren bat ez betetzeagatik, horiek azkentzeko arrazoi ez direnean.

- e) 6. artikuluan ezarritako baldintzaren bat aldi baterako galtzea.

Aurreko paragrafoan zehaztutako d) edo e) etete-arrazoiak gertatuz gero, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinarazi beharko dio, eta horiek 15 egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Halaber, hala badagokio, zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den administrazioak gauzatu ahal izango du prozedura hori.

Alegazioen izapidea bete ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposamen bat egingo dio ebazteko eskumena duen organoari. Proposamen horren ordezkariak edukiak honako hauek izango dira:

- a) Zerbitzuaren titular gisa jarraitzea.
- b) Eskubidea etetea eta zerbitzuaren titular izaera aldi baterako galtzea.

Proposamena jaso ondoren, ebazteko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinaraziko dena, dagokion errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

16. artikulua.- Zerbitzua azkentzea

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

- a) Erabiltzaileak edo haren legezko ordezkariak berariaz uko egitea.
- b) Onarpenaren-ebazpenean ezarritako zerbitzuaren iraupen-epea igarotzea.
- c) Erabiltzailearen heriotza.
- d) Arreta pertsonalizatuko programa aldatzea, aldez aurretik aitortutako zerbitzua jada egokia ez dela zehazten duena.
- e) Onuraduna 5.3. artikuluan jasotako baliabide edo programa iraunkor batean sartzea.
- f) Zerbitzua ematea eragin zuen beharraren arrazoa desagertzea.
- g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

- h) Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat galtzea modu jarraituan.
- i) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- j) Zerbitzua emateko garrantzitsua den egoera sozio-pertsonalaren aldaketei buruzko informaziorik ez ematea 15 eguneko epean.
- k) 6 hilabete baino gehiagoko etenaldi jarraitua igarotzea, etenaldi hori eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita, edo aldi baterako etenaldiaren epea igaro ondoren zerbitzura itzuli ez izana.
- l) Urte naturalaren barruan 45 egun baino gehiagotan zerbitzua hartzera ez joatea, justifikatu gabe.
- m) Zerbitzua ematen duten langileei edo zerbitzuaren erabiltzailekideei eraso fisikoa edo psikologikoa egitea.
- n) Arautegi honetan aurreikusitako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- o) Erakunde sanitario edo sozio-sanitarioen etengabeko laguntza eskatzen duen osasun-egoera izatea.
- p) Dagokion tratamenduari uko egitea, gaixotasun infekzio-kutsakor bat edota gaixotasun mental bat izanez gero.
- q) Langile profesionalentzat edo gainerako erabiltzaileentzat arriskutsuak diren jokabide-nahasmenduak izatea.
- r) Zehapen bat jaso izana, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako baldintzen arabera.
- s) Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk.

Aurreko paragrafoko d) letratik s) letrara bitartean zerbitzua azkentzeko deskribatutako arrazoietakoa bat gertatzen bada, udaleko Gizarte Zerbitzuak edo administrazio kudeatzaileak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinarazi beharko dio, eta horiek 15 egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko.

Alegazioen izapidea bete ondoren, unitate teknikoak ebazteko eskumena duen organoari proposamen bat egingo dio. Proposamen horren eduki alternatiboak honako hauek izango dira:

a) Zerbitzuaren titular gisa jarraitzea.

b) Eskubidea azkentzea eta zerbitzuaren titular izaera behin betiko galtzea.

Proposamena jaso ondoren, ebazteko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du.

Ematen den ebazpenaren aurka (positiboa zein negatiboa), legeak eskatzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinaraziko dena, dagokion errekurtsua jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Aurrekoa ez da aplikatuko eskubidea heriotzagatik edo uko egiteagatik azkentzen den kasuetan; kasu horretan, organo eskudunak espediente artxibatuko du, horri buruzko berriazko ebazpena eman ondoren.

Erabiltzaileak, azkentze-ebazpen baten ondoren, zerbitzuan berriro hasteko borondatea erakusten badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

V. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

17. artikulua.- Doako zerbitzua

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

18. artikulua.- Finantzaketa

Zerbitzua Herri Administrazioak finantzatuko du.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan jasota ez dauden kasu guztietan edo bertan jasota ez dauden kasu berezi guztietan, organo eskudunak gaitasun osoa izango du kasu bakoitzerako egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko mailako arau guztiak, arautegi honetan xedatutakoaren aurkakoak direnean.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA**PRESTAZIOAK****A) Informazioa**

Pertsona, familia eta erabiltzaile-taldee beren gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu dezaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruzko ezagutza egokia eta nahikoa garaiz eta behar bezala eskuratzeko aukera ematen dien prestazioa.

B) Jarraipenaren balorazioa

Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea eskatzen du, sakontasun handiagoarekin edo txikiagoarekin.

C) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea

Denbora gehiago edo gutxiago luzatzen den prozesu bat ezartzea eskatzen duten prestazio teknikoak. Prozesu horren bidez, erabiltzaileek beren kabuz moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarriak diren ezagutzak, jarrerak, ohiturak edo gaitasunak eskuratzen dituzte.

D) Gizarte-laguntza (akonpainamendua)

Prestazio honen bidez, pertsona batek, profesional kualifikatu batekin elkarreraginean, bere garapen autonomia eta gizarteratzea hobetzen laguntzen duen laguntza-harreman batean parte hartzen du.

Intentsitate handiagoa edo txikiagoa izan dezake, pertsonaren laguntza-beharraren arabera. Erabiltzaileak eskatutako laguntzaren intentsitatea aldatu (eta, nahi izanez gero, murriztu) duen ibilbideak planteatu behar direla ulertzen da.

E) Bitartekaritza:

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek gizarte-gaitasunak garatzera eta pertsonaren eta ingurune familiarraren, taldekoaren edo komunitarioaren arteko elkarreragina hobetzera bideratutako prozedura.